

## 1.FAMILIAK

### Sarrerak eta irteerak

- Sarrera eta irteera gimnasia ematen duen atletik izango da, Haur Eskolara sartzea ekiditeko.
- haur bakoitza heldu bakar batez lagunduta etorriko da.
- Familiak beste familiekin eta hezitzaileekin 1,5 metroko distantzia mantenduko dute.

### Garbiketa puntua

Patioko sarrerako hesian garbiketa puntu bat egongo da eta bertan familiak egin beharko du:

- Zentrora sartu aurretik maskara behar bezala jarri.
- Eskuak gel hidroalkoholarekin garbitu.

### Sintomen kontrola eta komunikazioa

- Familiekin haien seme-alabei tenperatura hartuko diete egunero eskolara joan aurretik.
- Haurraren gaixotasunaren sintomaren bat antzematen bada (37<sup>a</sup> baino gehiagoko sukarra, eztula, arnas zailtasunak, ezinegon orokorra...) ezingo da eskolara joan.
- Kasu positibo edo susmagarriren bat gertu izan duen haurraren familiak ezingo du eskolara gerturatu, medikuak baimendu arte.
- Familiekin, haurraren osasunaren egoera komunikatuko dute eskolara mail bidez edota telefono bidez.

## 2.JARDUAREN ANTOLAKETA

### Loreka iristean

- Ezingo da kaleko oinetakoekin eskolara sartu. Haurrek galtzerdi irristagaitzak erabiliko dituzte barruan. Familia kideak sartu nahi badu oinutsik egin beharko du.
- Haurrei tenperatura hartuko zaie sarreretan.
- Sartzerakoan eskuak garbituko ditugu edo gel hidroalkoholikoarekin desinfektatuko ditugu.

### Objektu pertsonalak

- Kutxatilategi bakoitzean ditugun zintzilikairuetan telazko zorro bat izan behar duzue egunero elkar trukatzeko ditugun gauzentzat. Poltsa honetan haurraren objektu guztiak sartu behar dira, motxila barne.

### **Taldea eta jarduerak**

- Jostariak taldea astero egonkorra izango da, agintariek ezartzen duten gehiengo haur kopuruarekin.
- Azpitaldeak egingo dira antolatutako jardueren arabera baina ez dira burbuila taldeak izango, sarrera eta bazkal orduan bezalako momentu desberdinetan kontaktua izango dutelako.
- Ahal den neurrian kanpo ekintzei lehentasuna emango zaie.
- Jangelan bazkalduko dugu eta haurren artean segurtasun distantzia mantendu ahal izateko txandak egingo ditugu bazkaltzera gelditzen diren haur kopuruaren arabera.

### **Prebentzio neurriak, garbiketa eta desinfekzioa**

- Maskararen erabilera ez da beharrezkoa izango 6 urte arte.
- Gelak aireztatze jarraitua izango du aireztatze sistemaren bidez eta CO2 neurgarri batekin aire kalitatea kontrolatuko da.
- Jostailu eta material nahikoa izango dugu haien errotazioa egin ahal izateko garbiketa behar dutenak erretiratzeko momentuetarako.
- Jostailu eta material nahikoa dago hauen aldaketa egiteko, horrela berrizatzeko aukera dugu garbiketa behar dutenak baztertzen ditugunean.
- Esku garbiketa maiztasuna handituko da.
- Komunaren garbiketa maiz egingo da.

## **3.MONITOREAK ETA BESTELAKO LANGILEAK**

### **Sintomen jarraipena:**

- Egutero tenperatura hartuko dute eskolara joan aurretik.
- Haurraren gaixotasunaren sintomaren bat antzematen bada (37<sup>a</sup> baino gehiagoko sukarra, eztula, arnas zailtasunak, ezinegon orokorra...) ezingo da eskolara joan.
- Ohiko osasun zentrora deituko da eta haien argibideak jarraituko dira.

### **Prebentzio neurriak eta urruntze soziala:**

- Monitoreak FFP2 maskara erabiliko dute.
- Monitore eta bestelako langileentzako COVID-19aren informazio plana: esku garbiketa, arnas higiea, maskara erabilera, sintomen kontrola eta gaixo egonez gero kontuan izan beharreko neurriak. Informazio kartelak ere erabiliko dira neurri hauek gogoratuz.

**Higiene neurriak:**

- Eskuen garbiketa protokoloa jarraituz, eskuen aldizkako garbiketa ur eta jaboiarekin.
- Begiak, sudurra eta ahoa eskuekin ukitzea ekidin.
- Doministiku ukondoaren barnealdearekin egin, paper zapiak erabiliz eta erabili ondoren zaborretara bota. Eskuak garbitu jarraian.
- Langileek jaboia eta ura eskura izan dezaten ziurtatzen da, baita behin erabiltzekoa den papera eta zaborrontzia ere. Hau ezinezkoa den tokietan gel hidroalkoholikoa izango dute.
- Ezin da zentrora kaleko oinetakoekin sartu. Eskolan bakarrik erabiliko diren oinetako edo galtzerdi irrista ezinak erabiliko dira.
- Hilea jasotzearen moduko ohiturak indartuko dira, eskumuturrekoak, lepokoak eta eraztunak ez erabiltzea. Azkazalak moztuta eta margotu gabe izatea ere.

**4. COVID-19 KASU BATEN SUSMOA DAGOENEAN ERABILI BEHARREKO PROTOKOLOA**

Haurraren gaixotasunaren sintomaren bat antzematen bada (sukarra, arnas zailtasunak, ezinegon orokorra...) :

- Familiari abisatuko zaio haurra jasotzera etor daitezen.
- Bitartean, taldetik urrun mantenduko zaio, aireztatze eta zabor eta materiala garbiketa bermatuko duen gela egoki batean. Haurrarekin dagoen helduak maskara erabiliko du.
- Familia bere Osasun Zentroarekin kontaktuan jarriko da eta bertan aztertuko dute egoera.
- Haurrak ezingo du eskolara joan pediatrak baimendu arte eta familiari informazioa pasa dezaten eskatuko diegu.
- Covid 19aren kasu positibo bat izanez gero Osakidetzarekin kontaktuan jarriko gara kontaktu zuzenen ikerketa egin ahal izateko. Horrez gain, gure Osasun Jarraipen zerbitzuarekin jarriko ginateke kontaktuan monitoreen kontaktu zuzenak kudeatzeko.

Eskolako langileengan sintomak agertzen badira:

- Langileak bere Osasun Zentrora deituko du eta bere adierazpenei kasu egingo die.
- Lantokira joan ezin duela komunikatuko zaio eta informazioa pasa dezan eskatuko zaio.
- Covid 19aren kasu positibo bat izanez gero Osakidetzarekin kontaktuan jarriko gara kontaktu zuzenen ikerketa egin ahal izateko. Horrez gain, gure Osasun Jarraipen zerbitzuarekin jarriko ginateke kontaktuan monitoreen kontaktu zuzenak kudeatzeko.

Loreka Haur-Eskolatik, zentroan COVID-19 kasuren bat izanez gero familiei komunikatuko zaie, egoera honetan aginte arduradunek iradokitzen duten neurriak azalduz.